

«Instituzioek lehiakortasuna sustatzeak kultura sektorearen atomizazioa eragiten du»

Lekeition topatu dugu Natxo Rodriguez eta biharamunerako jarri digu hitzordua, egun ederra iragarrita badago ere, hondartzarako modukoa. Bizkaiko herrian izango da datorren urrian ere, Euskal Zine eta Bideo Bileraren 40. edizioan, EHUKo Arte Ederren Fakultateak ekimean kolaboratzen baitu, batez ere epaimahai lanetan, eta, artista gasteiztarra fakultate horretako irakaslea baita, gaztetan irakaskuntzan jardungo zuenik imajinatzerik ere ez zuen arren. «Gaztetan, institutuan, arterako halako gogoia sortu zitzaidan, edo ikusmina, 16 edo 17 urterekin ez bainekien zertan ibiliko nintzen ere». Orain irakaskuntza lanbide duela, gustura dagoela dirudi: «Dibertigarria da, eta gustuko dudan horretan lan egiten dut. Gainera, unibertsitatean alde batetik irakaslea zara, beste alde batetik ikerkuntzan diharduzu, eta, azkenik, kudeaketan; hori nahiko aberasgarria da».

Arte Ederrak hasterako, marrazkiak eta argazkiak egiten zituen. «Nire aitak ere margotzen zuen, eta gaztetan argazki laborategi bat izan zuen etxean. Beharbada hortik etorri zitzaidan zale-tasun hori. Ni ez nintzen marrazkilari bereziki ona, ez nuen gauza gehiegi egiten, baina gogoia nuen. Ondoren fakultateak zeharo aldatzen zaitu. Nerabe sartzen zara eta 23 urterekin atera, heldu. Ni neure olioan maletatxoarekin sartu nintzen, artearen ideia jakin batekin, eta 23 urterekin ideia guztiz desberdin batekin ateratzen nintzen, ikusi eta ikasi nituen gauzengatik eta bertan ezagutu nituen lagunengatik. Izan ere, irakasleak, testuinguruak eta ikasketa planek bezala, lagunak ere eragin handia izaten dute zuregan, eta giro horretan sorkuntza, eta sormena, erraztu egiten dira».

Unibertsitate garaian zenbait erakusketa egin zituen. « Erakus-

keta kolektiboak, lehiaketetan ere parte hartu izan nuen, baita sariren bat irabazi ere. Aspaldi ez dut ezer pintatu».

TEKNOLOGIA BERRIEN GARAIA

Izan ere, unibertsitatean ez zuen bere prestakuntza bukatu, eta berehala teknologia berriekin topo egin zuen. «Gasteizko Irudi eta Teknologia Berrien Zentroan hasi nintzen (CINT), ordenagailuak agertzen hasi ziren garaian. Bi urte eman nituen bertan. Zoragarria izan zen hura. Teknologia berriek zabaldu zuten bidetik jo nahi zutenentzako zentroa zen, ikus-entzunezkoen eremuan betiere, zinemagintzan, telebistan edo bideoan jardun nahi zutenentzat. Esan bezala, ni fakultate-tik beste ideia batekin ateratzen nintzen, nahiko ideia tradizionala, ohiko bidetik: pintura, eskultura... Kontua da nik CINTen lehen aldiz ordenagailu bat ukitu nuela. Fakultatean badakit Macintosh bat edo beste bazegoela hor nonbait, baina guk ukitu ere ez genuen egin. Eta orduan hasi nintzen irudiak digitalizatzen eta manipulatzeko, collageak egiten eta serigrafia bidez mihisera pasatzen. Eta gero bideoak eta infografiak, instalazioak, ikus-entzunezkoak egiten hasi nintzen. Horixe izan zen edizioarekin, ordenagailuekin, kamerekin, infografiarekin... izan nuen lehen harremana. Dena oso oinarritzkoa zen, oso primitiboa, baina bi urte haiek oso emankor eta erabakigarriak izan ziren niretzat».

Gaurtik begirata, «historiaurrea» omen da, baina Natxo eta garai hartako artistak aitzindariak izan ziren Euskal Herrian. «Batzuek lanbide ikasketa izan zuten hura, eta beste batzuek gure zoramena gauzatzeko aukera. Handik jende ezagun asko pasatu zen; esate baterako, Francisco Ruiz Infante, Fito Rodriguez, Iñaki Dorronsoro, Juanma Bajo Ulloa, Cristobal Baigorri, Martin Guridi... Hau da, gaur egun Gasteizen ikus-entzunezkoetan dabilen jende mordo bat. Gero desagertu egin zen, pena handia izan zen. Han nengoela, fakultatean nengoenean bezala, tabernetan lan egiten nuen asteburuetan; ondoren, marrazki akademia ba-

tean hurrei eskolak ematen hasi nintzen. Hurrengo lanbidea Eskolapioen ikastetxean izan nuen, zenbait urtez irakasle. Euskarazko irakaskuntzan ere ikastetxe hartan hasi nintzen».

RODRIGUEZ FUNDAZIOA ETA SEAC

«CINTen Fito [Rodriguez] ezagutu nuen, bera irakasle baitzegoen bertan, Luis Emaldirekin eta Koldo Aginagalderekin batera, Teofilo Mingueza argazkilari arabarraren izena zuen tailer esperimentalean. Fitorekin gauzak egiten hasi nintzen eta Rodriguez Fundazioa sortu genuen. Aldi berean, SEAC (Selección de Euskadi de Arte de Concepto) ere sortu genuen Pepo Salazar, Beni Martinez de Ilarduia, Fito eta lau-rok. Denon arteko lotura CINT izan zen. 1998ra arte iraun genuen elkarrekin. Rodriguez Fundazioak ibilbide luzeagoa izan zuen, 2012ra arte, hain zuzen».

Rodriguez biak, Fito eta Natxo, halaber, GARAKo kolaboratzaileak izan dira –eta oraindik ere badira aldian-aldian–. “Mugalari” kultura eranskinean idatzi ohi zuten. Natxok dioenez, ez zuen euskaraz idazteko ohiturarik. «Eskolak euskaraz ematen nituen, baina ez nengoen horrelako kolaborazioak euskaraz egiten ohituta». Hala ere, erronka polita izan zela dio: «Pila bat ikasi nuen». Izan ere, garai hartan ez zen gauza samurra arteaz eta teknologia berriei euskaraz idaztea.

Dibertigarria iruditzen zaio garai hura gogoratzea, unibertsitateko ordezkapenak, Eskolapioetako eskolak eta Rodriguez Fundazioko eta SEACeko proiektuak uztartzen zituenekoa. «Testuinguru kulturala ez zen gaurkoa. Garai hartan Euskaltel sortu zen, baina artean ez zeuden Guggenheim edo Artium. Guk pintura eta horrelako artea oso goiz utzi genuen alde batera, eta galerien sistema, merkaturak eta hori guztia ez zegoen gure perspektiban. Gauza ez-objektualak, bideoa, performancea, bideo instalazioa egiten genituen, eta horretarako ez zegoen lekurik garai hartako arte sisteman. Baina horrek ez gintuen gehiegi kezkatzen. Gainera, gure zereginean bazegoen asmo kritikoa. Merka-

NATXO RODRIGUEZ ARKAUTE

ARTISTA ETA IRAKASLEA

Arte Ederrak ikasitakoan, teknologia berriekin topo egin zuen. Horiek eta artea uztartzen hasi zen belaunaldikoa da Natxo Rodriguez artista gasteiztar aitzindaria.

tuan sekulako gorakada izan zen, garai hartan sortu ziren museo gehienak, dena saltzen zen, dena garesti: ARCO, hitzordu ospetsuak, dena guztiz ofiziala... eta gu kritikoak ginen harekin guztiarekin. Ikuspuntu kontzeptualetik, 'puretagoak' ginen, 60ko eta 70eko hamarkadetan abiatutako mugimenduetatik gentozen».

SEACeko kideek Guggenheim nabarmen uzteko zenbait ekin-tza egin zituzten, esandakoaren paradigma zelako; esate baterako, futbolariz jantzita joan ziren bertara obrak ikustera, «azken batean, gu Euskadiko Selekzioa ginen». Ekintza hura zen beren artelana: bidaia, bisita, mozorroa, langileekiko solasak eta guztia- ren argazkiak. Gogoan du Natxok lehen elkarrizketa "Egin" egunka- riak egin ziela.

Gustuko gauzak egiten zituzten: bideo artea, *net art* (Interne- terako artea), bideogintza, CD- ROMeko lehendabiziko proiektu artistikoa... «Horrelako euska- rriak eta teknologiak interesa- tzen zitzaizkigun, bide berrien bila. Eta gauza berriak proposatu eta antolatzen hasi ginen, lehe- nik Gasteizen, Amarika aretoan. 1996 aldera han egin genuen le- hen proiektuak 'Aglutinatzaileak eta disolbatzaileak' izena zuen. Ez zuen zerikusirik, esaterako, pinturarekin, teknologia berrie- kin baizik, eta lehen erakusketan CD-ROMak, *net art* proiektuak eta soinu esperimentalak zeuden ikusgai eta entzungai».

ARTELEKU

Natxoren formakuntzan berebi- ziko garrantzia izan zuten, hala- ber, 1994an Artelekun egin zi- tuen bi tailerrekin. Lehenengoa, Francesc Torresekin. «Txip alda- keta ikaragarria» izan zen bere- tzat esperientzia hura. Horrela hasi zen, bestalde, Rodriguez Fundazioaren eta Artelekuren ar- teko harremana. Artelekuko zu- zendaritzak artearen eta teknolo- gia berrien arteko harremanen inguruko ikastaroa egitea propo- satu zien Natxori eta Fitori. Tek- nologia haiek CD-ROMak, Inter- net, ordenagailuz editatu ziren lehenbiziko bideoak edo digitali-

«*Arte
produkziorako
baliabide haiek
[CINT eta Arteleku]
desagertu egin dira
eta horren ordez ez
da ezer sortu.
Sortu den guztia
edukitzaile itxiak
dira, gauzak
erakusteko bakarrik,
Guggenheim,
Artium eta
horrelako egiturak*»



zazioaren lehen pausoak –gure- tzat behintzat– ziren. Proiektu hark bi urte iraun zuen. Deialdi publikoa egin zuten eta hainbat artistak parte hartu zuten, bat- zuk gaur egun famatuak dire- nak, hala nola Ibon Saenz de Ola- zagoitia, Maria Cañas eta Mauro Entrialgo.

Fakultatearekin batera Natxo- ren formaziorako ezinbestekoak eta erabakigarriak izan diren le- ku bi, CINT eta Arteleku hain zu- zen, desagertu egin dira. «Arte produkziorako baliabide haiek desagertu egin dira eta horren ordez ez da ezer sortu. Sortu den guztia edukitzaile itxiak dira, gauzak erakusteko bakarrik, Gug- genheim, Artium eta horrelako egiturak. Beharbada BilbaoArte izan liteke aurreko haien antze- koa. Testuinguru kulturala zeha- ro aldatu da. Baten batek esan le- zake azpiegitura berriak irabazi ditugula, baina azpiegitura ho- riek ez diete jaramonik egiten zenbait faseri; esate baterako, formakuntzari eta produkzioari. Dena erakustea da. Agian gera-

tzen den gauza bakarra fakulta- tea da, ez dakit... Fakultatean egu- nero produzitzen da artea. Ateak zabaltzen diren momentutik jen- deak marrazten, idazten, graba- tzen edo eskulturak egiten jardun- ten du. Lehen hori leku gehiagotan gertatzen zen, baina gaur egun edo ekimen pribatuak dira edo, modu publikoan, fakul- tatean bakarrik egiten da. Muse- oek eta arte zentroek badituzte programa txiki batzuk, baina ez da gauza bera, paradigma aldake- ta egon da. Eta Euskal Herrian hi- ri ehundura ikaragarria dugu kulturari dagokionez, oso abera- tsa. Begira Bilbon, edo Gasteizen. Gasteizen proiektu pila bat dago, batzuk mitikoak: Hala Bedi, Gaz- tetxea, Hell Dorado... Baita azken boladan agertuz joan direnak ere: Baratz, ZAS, Monstrenka... Hori guztia, gainera, instituzioe- tatik kanpo. Batzuek, ez guztiek, laguntzak dituzte nonbait, baina azkenean motxila euren bizka- rrean dago. Eta Bilbon gauza be- ra. Giro kulturala pil-pilean dago, baina ez dago kezka instituzional

edo ofizialik hori sustatzeko eta horri eusteko.

INSTITUZIOEN JARRERA

Kezka horrek bultzatuta, Gastei- zen Arabako Kulturaren Mahai Sektoriale sortu zen iaz. «Bazen horrelako zerbait sortzeko garaia, sortzaileen artean ez baita sekula halakorik egon. Nire lagun batek esaten duenez, badaude sindika- tuak maila guztietan, baina sor- tzaileen artean ezinezkoa izan da zerbait kolektiboa sortzea kezka eta arazoak bideratzeko. Kolekti- bo guztiz atomizatua izan da. Horrek sortzailearen egoarekin zerikusia du, beti euren arteko gatazka sortzen da, eta nik uste dut instituzio publikoen estrate- gia ere izan dela. Azken urteotan izan ditugun diru laguntzek eta kultura programek proiektuak gauzatzeko balio izan dute alde batetik, baina, bestetik, beti lehiakortasuna sustatu dute eta horrek sektorearen atomizazioa eragin du. Orain hainbat mugi- mendu eta erakunde biltzen di- tuen zerbait sortzea, Mahaia ka-




Argazkiak: GAUR8

su, oso interesgarria da. Zaila izango da, motela da-eta, baina presentzia bat, indar bat da. Ematen du hori arloaren arazoa dela, baina nik uste dut erakunde publikoek lan egin behar dutela hori errazteko; egituratu, antolatu egin behar da. Guztioi interesatzen zaigu eremu kultural aberats eta bizia. Baina erakundeek ez dute ezer egiten, beti dago plan estrategikoren bat, bata bestearen atzean, baina eragile independenteak ez dira zaintzen. Nekagarria da, horrek jendea desaktibatu besterik ez du egiten. Helburua zein da? Beharbada horixe, jendea desaktibatzea. Noraino den sektorearen akats historiko bat edo noraino den erakunde publikoen estrategia bat, ez dakit. Azkenean, politiken falta politika da».

AHALEGIN PUBLIKOA, JENDARTERA

Esan bezala, oso gustura dago fakultatean, eta oso inplikaturatuta. zuzendaritza taldean egon da zazpi urtez. Arantza Lauzirika Arte Ederren Fakultateko dekanorekin taldean gauza interesgarriak egiteko aukera izan omen du. «Fakultatea organismo oso bizia da, egunero ekoizten da kultura, egunero egiten dira gauzak, akademikoak ere bai, jakina. Hala ere, orain dela bi urte honakoa pentsatu genuen: 'Fakultatean milaka gauza egiten dira. Arlo akademikoa, ikasketa planak, argi daude, baina paraleloki Fakultatean beste hainbat gauza ere egiten dira: erakusketak, mintegiak, hitzaldiak, proiektzioak...'. Kontua da inork ez zekiela zenbat gauza, noiz eta nola egiten ziren, eta motorra gelditu genuen pixka batean, ea zer egiten dugun ikusteko. Hala, modu paraleloan egiten ziren jardueren mapa egiten hasi ginen. Eta gure mapa ofizialaren ondoan, beste mapa bat agertu zitzaigun. Mapa horretako jarduerak ez dira akademikoak, baina fakultateari nortasun propioa ematen diote. Estatuan Arte Ederren hainbat fakultate daude, baina hau berezia da, Bilboko edo herri honetako testuinguru kultural eta sozioekonomikoan dagoelako, ikasketa plan propioa duelako eta haren inguruan hainbat gauza gertatzen direlako,



tokiko testuinguruekin zerikusia duten hainbat gauza; Bilbon, Gasteizen, Donostian, herrietan gertatzen denarekin, alegia. Beraz, argazki hori egiten saiatu eta nolabaiteko erretratua atera dugu. Eta hori ikusita, alde ez-akademikoa ere sustatzen saiatu gara, ikasleentzat oso garrantzitsua delako. Oso garrantzitsuak dira irakasgaiak, proiektuak, gradu amaierako lana... baina Bilboko testuinguruan edo Euskal Herriko giro kulturean zenbait proiekturen bidez parte hartzea are aberatsagoa da ikasleentzat. Eta jendeak kanpotik ikusi egiten du, Madriletik, Sevillatik edo Italiatik hona ikastera datozenek badakite zer dagoen, eta, ez badakite, berehala konturatzen dira. Hori sustatu egin behar da».

*«Errekaleorkoa
Kopenhagen,
Stockholmen edo
Korean gertatu izan
balitz, herritarren
halako ekimen
ikaragarria izango
zen, txalotzekoa...»*



Horregatik sortu zuten Zabba-alik! proiektua, fakultatetik ikasleei aurrekontuaren parte bat haiek kudea dezaten egindako proposamena. «Aurrekontuaren zati txiki bat da, baina eurek bakarrik kudeatzeko. Ez da diru laguntza bat soilik: deialdi baten bidez ikasleek proiektuak proposatu ez ezik kudeatu ere egin behar dituzte. Hala ikasleak neurri batean fakultatearen kudeaketan parte hartzen dute, ideia berriak eta formatu berriak ekartzen dituzte, gazteak eta ausartak baitira». Eta ondo atera omen da. «Esandako Euskal Herriko ehundura kultural horretan diharduten asko gure ikasleak izan dira». Argi du Natxok erakunde publikoen zeregina, unibertsitatearena behinik behin. «Publikoa bal-

din bada, publikoarentzat lan egin behar du, eta nolabait jendarteak egiten duen ahaleginak gizartera itzuli behar du. Askotan, artean behintzat, ez da hori gertatzen, askotan artegintzan egiten den ahalegin publikoa galerietara, ferietara eta horrelako leku pribatuetara joaten da. Hori eremu pribatutik egiten baldin bada, arazorik ez, bere logika dauka, baina ekimen publikotik beti saiatu beharra dago ahalegin publikoa jendartera itzul dadin. Guk fakultatean egiten duguna hortik doala uste dut».

Oporretan dago Natxo, baina etxerako lanak ere baditu. «Nire azken erronka aurten EHU-n sortu den Kulturgintza Zuzendaritzaren ingurukoa da. Plan bat proposatzeko lanean gabiltza. Orain arte unibertsitatean kulturgintza hiru campusetan kudeatu da, Gasteizen, Bilbon eta Donostian, horietan bazegoen kultura zuzendaritza bana; orain, horiekin batera eta maila berean, zuzendaritza berriaren koordinaziopean, guztion artean proposatu behar dugu plan bat, irizpide globalago batekin. Udako etxerako lana dut hori, irailerako egin behar baita proposamena, 18tik aurrera gutxika abian jartzeko».

ERREKALEOR

Unibertsitatea alde bat utzi eta beste gai bat ekarri dugu hizpide, nolanahi ere, hori ere kulturari loturik: Errekaleor. Proiektu horren aldeko agiria sinatu zutenen artean ageri da Natxo Rodriguez. «Lehen testuinguru lokalaz esan dugunak zerikusi handia du horrekin. Hori Gasteizen gertatu izana ez da funtsik gabea, eta nire ustez hiriaren lorpen bat da. Batzuek arazo bat ikusten dute; nik, berriaz, aukera bat. Pentsa hori Kopenhagen, Stockholmen edo Korean gertatu izan balitz, herritarren halako ekimen ikaragarria izango zen, txalotzekoa... eta hemen arazo gisa ikusten dute. Gasteiz izan beharko luke nazioarteko autogestio-ikerketarako kasu bat. Non aurkitzen duzu hemen dagoena? Zergatik gertatzen da hori Gasteizen? 70eko eta 80ko hamarkadetan gertatutako hainbat gauzaren testuinguruan hiria formatu egin delako».